# ESKELETO BARREGARRIAK

Testua eta irudiak: JANET & ALLAN AHLBERG

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 20,5 x 26,5 cm. 32 or. 15 €
Tinta fosforeszentea erabili da azalean.

**Eskeleto barregarriak** (euskaraz)
ISBN 978-84-9172-159-8. Gaur egungo klasikoak.

**¡Qué risa de huesos!** (gaztelaniaz)
ISBN 978-84-8464-385-2. Clásicos contemporáneos.

**Os esqueletos divertidos** (galegoz)
ISBN 978-84-8464-384-5. Tras os montes.

**Els esquelets divertits** (katalanez)
ISBN 978-84-16804-49-8. Clàssics contemporanis.

**Que ossos curiosos!** (portugesez)
ISBN 978-989-749-139-9. Clássicos contemporâneos.




*Istorio hau honela hasten da:*

*Muino ilun-ilun batean*

*herri ilun-ilun bat zegoen.*

*Herri ilun-ilunean*

*kale ilun-ilun bat zegoen...*

«Eskeleto barregarriak» liburu dibertigarriak hiru izakiren eskeletoak ditu protagonista: gizon batena, ume batena eta txakur batena. Hiru eskeleto horiek gauez ateratzen dira, paseatzera eta jendea ikaratzera. Ez dira, ordea, pertsonaia beldurgarriak, -irakurleekin batera- jolasean, kantuan eta are elkar izutzearen bidez ondo pasatzen duten pertsonaia maitagarri eta jostalariak baizik. Hala ere, lehen biak hain dira despistatuak, txakurraren hezur nahastuak berreraikitzeko saltsa ikaragarri komiko melodiko bat antolatu baitzuten.

Iluntasunean dirdira egiten duen azal deigarri batetik abiaturik, liburu honi darion barrez lehertzeko moduko umorea are indartsuagoa da formula narratiboen errepikapenari, kontakizunaren goibeltasuna areagotzen duten esamoldeei eta intriga eta tentsioa sustatzen duten ekintzen –gorakako eta beherakako- progresibotasunari esker.
Beraz, nola edo hala antzeztuz irakurria edo kontatua izateko istorio bat da.

Alpoja hirukote horren abenturak ilunpetan gertatzen badira ere, ilustrazio koloretsuak nabarmentzen dira, orrialde osoa betez zein binetatan banatuta (pertsonaiek kantatzeko edo elkarrekin hitz egiteko). Hala, kontakizun orojakilearekin paraleloan garatzen den beste irakurketa maila bat eskaintzen da.

- **Gaia:** beldurrezko eta umorezko ipuina.
- **Gomendatutako adina:** 5 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** gorputzeko hezurrak,anatomia; jolasak, kantak; komikia; azaleko elementu grafikoek distira egiten dute iluntasunean.

- **Liburu-aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/eskeleto-barregarriak-eusk

**Janet Hall**
(Yorkshire, Ingalaterra, 1944 - 1994)

**Allan Ahlberg**
(Croydon, Ingalaterra, 1938)

Irakasleak prestatzeko ikastaro batean elkar ezagutu, eta 1969an ezkondu ziren. Haurrentzako 40 bat liburu sortu zuten elkarrekin, gizonezkoak idatzi eta emakumezkoak ilustratuak. Ilustrazio horiengatik, Janet Hall-i Kate Greenaway domina eman zioten bi aldiz. Beren lehen lanak 1976an argitaratzen hasi zirenetik, arrakasta handiko egileak izan dira eta milioika ale saldu dituzte, harik eta Janet hil zen arte. Allan-ek 150 obratik gora sortu ditu, haietarik zenbait bien alaba Jessica Ahlberg-ek ilustratuak.




Kalandraka www. .com
Pamiela etxea www. .com